

GAUR8 


2008ko abenduaren 6a | II. urtea • 89. zbk.

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

HITZAK ETA HITZAK ZULOA BETE NAHIAN


EZ ZEN BERA HITZ ASKOKOA.
JOAN DA MIKEL LABOA ETA BERARI
BURUZKO HITZAK AGERTU DIRA BAZTER
GUZTIETAN. ZAILA DA ZULOA NOLAKOA
DEN HITZEZ ESATEA.
BERAK AISE ASMATUKO LUKE
EUSKALDUNEI SABELEAN SORTU ZAIEN
KORAPILOA ABESTI BATEAN
HARRAPATZEN.

> 15 Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



HITZAK HITZ GUTXIKO GIZONARENTZAT

Mikel Laboaren heriotzak oihartzun oso zabala izan du komunikabideetan. Adibide batzuk bildu ditu GAUR8k



Zaila da Mikel Laboaren abesti batek sortzen duena, sentiarazten duena, hitzekin kontatzea. Eta zailtasun berekoa gertatu da aste honetan Laboari agur esatea. Zaila izanagatik ere, lerroak eta lerroak idatzi dira aste honetan komunikabide askotan, kolore guztietako komunikabideetan gainera. Horietako batzuk bildu ditugu jarraian.

Lagunak, miresleak, bere magian harrrapatu zituenak... asko izan dira idaztera

animatu direnak, korapiloa hitzekin deskribatzen saiatu direnak. Seguru Laboak berak aise sortuko zuela egoera honetarako abesti perfektua. Hitz gutxikoa zen bera, abesten esaten zuen dena.

Erraldoia zen Mikel Laboa, nahiz eta txikietan txikienaren ibilera izan. Hala nahi zuen berak. Egia esan, ez zekien beste modu batera ibiltzen. Eta horrek, apaltasun eta txikitasun horrek, are erraldoiago bihurtzen zuen. Horregatik, seguru aski lotsatu ere egingo zen hainbeste zalapartarekin.

Mikel Laboa, 2007an,
«Lekeitioak» bildumaren
berrargitalpena aurkeztu
zuen egunean.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Juan Gorriti (GARA)

Hemen gaude; Batzarren, *casa matriz* izenez betiko bataiatu zenuen etxean, suarekin, urdaiazpikoarekin eta ardo basoarekin: botika, errebotika eta hain osasungarria den siesta. Txaro, Jon eta hirurok; zurekin eta Marisolekin, Agurtzane eta Izarorekin. Benetakoa simpletasunean dagoela bazenekien, eta zer sinpleagorik urteotan zure presentziarekin bete duzun *casa matriz* hau baino. Hemen geratzen da. Suaren kearrak egiten duen moduan, Batzarrek Mikel Laboaren itsatsia jaso du, arratsalde erdiko bisitak, tertulia lasaia eta patxadazkoa. Etxe honen pareta bakoitzean sentimendu korapilo bat dago, sukalderrantz doan eskailera maila bakoitzean maitasun lokarria.

Hotz egiten du gaur Araizko haran honetan. Eta Aralarreko hagin zaharretatik kolore biziak jantzitako txori taldea dator. Mikel Laboarekin kantari ari dira.

Andoni Tolosa (BERRIA)

Beldur ginen moduan, loredien maitalea larritzen hasi da, noraezean dabil eta izarren hautsa pilatzen hasi da errepide ertzetan. Gaur badakigu denok ditugula bazter ezkutak gure baitan, soilik kanpoan behe lainoa dagoenean ikusten ditugunak. Gaur Laboari esker badakigu zozoak ere lurpean sartzen dituztela kaiolan bizitza eman ondoren, txori erresinulek sasoi jakin batzuetan kantatzen dutela, eta ondorioz, pixka bat gizakiago gertatzen gara. Orain ne gu hurbilak apur bat izutzen gaitu, taberna zokoan herria eta hizkuntzaz ari garenean, eta ez dakigu nork jasoko dituen hemendik aurrera historia liburuari egin nahi dizkiogun galderak. Atzotik aurrera pixka bat umezurtzago gara.

Txuria (KAZETA.INFO)

Eserita zegoela, txapela beltzeko gizon bat hurbildu zitzaion «kaixo potxolo» esanaz, eta ahopeka esaniko «kaxo» bat besterik ez zuen ukan erantzuntzat gizon hark. Gero, behetik gora erreparatu zion gizon hari umeak, eta segituan ohartu zen txapel hura ez zela bere herriko baserritar eta artzainek zeramate-na, gizon hura ez zela bertakoa, eta haren beha geratu zen. «Ez al duzu hotzik?» galdetu zion gizonak, eta umeak ez zion erantzun; «Ah!, bai, ohartu naiz, hotza baduzu, baina mingainik ez» xaxatu zuen berriro ere, eta, hor ja-

so zuen haurraren erantzuna hatzarekin tabernaurreko makina erakusten ziola: «Ba bai, hotzez nao, eta badaukat mingaina, baina ez daukat kanikarik!». «Bale, bale. Ulertu dut, ez duzu kanikarik...ez baituzu txanponik...ezta? Ba, begira, nik txanpon batekin aterako dizut kanika bat, baina atera aurretik, begira iezaiozu zure inguruari, eta esaidazu ez ote den askoz ederragoa ikusten duzun guztia, eta ohar zaitez hori dena txanponik gabe zurea dela...». Hala esan zion gizonak. «Baina nik ez dut nahi hori, kanika bat nahi dut» builaka erantzun zion mutikoak. Txapela beltzeko gizona Mikel Laboa zen. Eta ni nintzen mutikoa. 1977. urtea zen, ostirala ustez, eta astebate beranduago edo, Beasaingo Kilometroetan kantatu behar zuen txapelaren jabe zen gizon hark.

Aingeru Epaltza (DEIA)

Bere 74 urteekin, bere belaunaldiko batzuek bezala zokoratua izatetik urrun, euskal musikaren labekada berrientzat erreferente bat izaten jarraitzen zuen. Bere lanekin bai bertsiio sinfonikoak, bai eta pop eta hardcore estiloko moldaerak ere egin dira. Bere erantzun lakonikoengatik elkarrizketatu nahi zuen edozein kazetarientzat amesgaiztoa bihurtzen zen. Berea ez zen titularrak ematea, abestea baizik. Eta handienek bakarrik izan ohi duten irribarre lotsatiarekin egiten zuen. «Goizueta», «Bereterretxe», «Izarren hautsa», «Lizardi», «Gure oroitzapenak»... Euskal kulturaren azken 40 urteak ezin dira ulertu bere musikarik gabe. Astelehenean hil zela esaten dute, baina hori figura literario bat baino ez da. Berak abestu zuen: «*Ametz betezko loa baitakar behin betirako hiltzeak*».

Joxe Angel Irigaray (EL DIARIO VASCO)

Zaila, hala ere, hutsunea berdintzea. Kontsolamendu bakarra haren zirrara bereziko ahots gardenak, haren eguzki printzez eta lanbroz amultsuki bilduriko kantuak, belaunaldiz belaunaldi eta tokiz toki, iduri lukeen baino haurrideago egiten gaituztela sentitzea. Gure hainbat lurralde eta arlo «oin puntetan» deliberamenduaz zeharkatu dituenaren heredentzia daitekeen oparoena baitaiteke, behar eta merezi bezala entzuten eta aditzen ikasiz gero.

Mikel Laboa zenarentzat oparirik prezatuena, segurik; guretzat arnas-emai-le joria galeraren patupeko txangoan.

Hori eta haren bizipozaren zentzu sakona.

Aitzol San Sebastian (EL MUNDO)

Donostiarraren erreperitorioa ereserki bihurtzeko arriskua zuten abestiz josia zegoen; azti erraldoi horren aurrean lagunak eta etsaiak kopuru berean sortzeko gai ziren ereserkiak. Kontrakoeak, Laboa dagoeneko hegan oso goitik zebilenean ere, sekula ez diote onartu mugaren alde horretan egindako militantzia. Inoiz ez dute onartuko beraiengan indar handiagoa izan duela ezin ulertuak besteengan sortzen zuen lilurak baino. Gainerakoak mirespenez markatu gara indar artistikoaren aurrean, laguntasun leialaren aurrean, irribarre pikaroaren aurrean eta, batez ere, itxuraz geldoak ziren bertsoak bizitasun infinitudun pilula zirrargarri bihurtzen zituen misterio horren aurrean.

Iñaki Salvador (NOTICIAS DE GIPUZKOA)

27 urte zaharragoa naizen goiz honetan, Mikelek, nahi gabe, berriz lezio bat eman dit. Aurretik emandako lezio guztien antzera, oso modu diskretuan, isilean, samur baina zorrotzean; egun bakar batean ulertzeko eta barneratzeko zaila den jatorrizko lezio bat. Mikelek, berak aukeratutako bakardadeekin eta, era berean, hautatutako lagunarte helduan, gozatutakoan eta Marixolen alboan ondo bizitakoan, logikaren begiekin deskubritzen kasik ezinezkoak diren arpegioak, notak eta harmoniak irakatsi dizkit. Mikelek gure lanbide txiki honetatik pertsoneri eta munduari begiratze-ko modu bat irakatsi dit: arima zultzen zaizun gaurkoa bezalako goizak ulertzeko behar den eromen eta samurtasun dosi justua dituen begirada.

Lluís Llach (BERRIA)

Ageri zituen kontraesanetan ere koherentea zen, nolabait esatearren. Artista gisa, hark jokaturiko paper konplexu guztiak egingo nituzke neure, oso-osorik. Hain zen apala eta neurritsua beti; konpromisoak eta erantzunak eskatzen zizkion jendeak, eta horren lekuko zuzena izan naiz, ni neu. Musika aldetik, ausarta zen, berritzailea, guri burutik pasatu ere egingo ez litzazkigukeen gauzetan ausartzen zen. Horrexegatik da hain handi; hiru arloetan ere bat eta bera izan delako. Ezin ekar daiteke hiz-

pidera Mikel, artista gisa bakarrik. Ezin ekar daiteke hizpidera Mikel, herri edo politika ikur gisa bakarrik, alegia Euskal Herriko kultura suspertzen eta herriari zegozkion makina bat gaitan esku hartzen jarduteagatik. Handia zen, aldi berean, herriko ordezkari eta artista gisa. Haren handitasunak berezko zituen bi ezaugarri horiek.

Kirmen Uribe (GARA)

Poema gaixoak Laboaren musika gabe ezerezean geratzen dira, herabe, hegorik gabeko. Horixe gertatzen da "Gure bazterrak" edo "Lili bat" olerkiekin. Benetan olerki zoragarriak. Baina paperean ikusita hain dira txikiak. Aitzitik, Mikelen musikarekin beste bizitza bat hartzen dute. "Izarren hautsa" Xabier Leteren olerkiarekin egin zuen irakurketa esanguratsua da, Letek berak poemari ikusi ez zion musika atera zion Laboak, ahaztu ezineko kanta bihurtzeraino. Ez da egon gure artean poemek barnean daramaten musika hori ateratzen horren iaioa izan den musikaririk.




"Lekeitioak" nondik sortu zaizkion azaltzeko Laboak gerra garaian Lekeitio emandako egunak ekartzen zituen gogora. Ume bat baino ez zen orduan. Eta haurtzaroko oroitzapen horietatik idatzi zituen "Lekeitioak".

Ni bera bezain txikia izango nintzen Zumetaren kartela ikusi nuenean, txiki txikia Laboaren kantuak entzuten nituenean. Eta ziur nago, idazten jartzen naizen bakoitzean atera egiten zaizkidala barrutik bere koloretako kanta haiek, hortxe daudela nire ondoan, eta egongo direla.

Victor Leinore (PUBLICO)

Hogeita hamar urte inguruko askok bezala, berandu deskubritu nuen Mikel Laboaren musika. Ez da erraza jakitea zergatik euskaraz adierazteko aukera egiten duten artistak zentsuratuak izan ohi diren komunikabideetan.

Bere diskoetan barna sartu nintzenean, espero nuena baino askoz gehiago topatu nuen. Tradizioaren eta abangoardiaren arteko lotura perfektua eskaintzen du. Baina, horrela esatea hotzegia izango litzateke. Izan ere, guztiaren gainetik erraietakoak eta mardulak diren abestiak dira bereak, naturaltasun izugarriarekin joaten direnak.... Bere abestietan kutsatzen duen emozioa, paisaia batek eragiten duenaren antzera, ezin da ikasi edo irakatsi,



Goiko irudian, Mikel Laboa 1999 urtean Donostian eskainitako kontzertu batean. Erdiko eta beheko irudiak, 2005ean eta 2007an jasotakoak dira. Jon URBE-Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

baina sentitu daiteke (eta garatu eta betiko gorde, berak bere bizitza artistikotan barna egin zuen bezala)... Bere heriotza bezain tristea da Londresen, Sao Paulon edo New Yorken jaio izan balitz etxean bere disko gehiago izango genituen susmoa.

Felipe Juaristi (EL PAIS)


Ordutik urteak joan diren arren, abesti haiek medikuek bezala jokatzen dute, sendagarriak dira, memoriaren zorigaitzoko demiurgoak; eta errealityetik haratago eramaten gaituzte, denbora gelditu egin zen eta gure irudimena marrazten joaten den toki batera. Toki hori ez da zabala edo arrotza, sentimentala da... Laboaren abestiek bihotza daukate, eta lumak; horregatik dira eramangarriak. Bera ere arin ibiltzen zen, inguruan zituen gauza astunak saihestu nahian... Laboak ahotsa nekatua zuen eta itsasoak harekin jolastu egiten zuen, eraman eta ekarri egiten zuen. Gaurko euriak badu zerbait berea, nahi gabe ere busti egiten du.

Maribel Chavarria (LA VANGUARDIA)

Azken urteotako Laboa arriskuaren laguna da, fadoaren eta tangoaren akordeetan irristan ibili da. Azkenekoz taula Donostian zapaldu zuen, 2006ko uztailan, Bob Dylanen kontzertuan telonero gisa aritu zenean. Bartzelona zain zuen 2007ko martxoan, Luz de Gas aretoan, baina, Pere Campsek gogoratu duenez -BarnaSants kantautoreen jaialdiko zuzendaria-, bi aste lehenago bertan behera utzi zuen kontzertu hura, sendagileen ziurtagiri bat aurkeztuz. Urrun geratzen ziren Palau Saint Jordin eta Festival del Milenin Raimonekin izandako buruz burukoak. Euskal gizartearen erreferente kulturala zena apenas agertzen zen jendaurrean azkenaldian, osasun arazoak zirela medio.

Luis Martin (ABC)

Mikel Laboa gotorleku bat zen, Ez Dok Amairu taldeak abiatutako musikaren eta artearen adierazpenaren bidean nahitaezko erreferentzia. Eta agian -Benito Lertxundirekin batera-, Euskal Herrian bere ahotsari balioa ematen jarraitu dutenen artean garrantzitsuena. Bere tinbre malenkoniatsu eta pertsonalak jatorrizko izendapenez zipriztindutako bidea egin du askotan apal disko grafikoetan barna.




Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Gotzon Garate


Gotzon Garate urrian hil zen, 74 urte zituela, minbizi baten ondorioz. Euskararen eta euskal kulturaren zerbitzari suharra izan zen. Hiru arlo nagusitan egin zuen lan Garatek: marxismoari buruzko saiakerak eta polizi eleberririk idazteaz gain, baserrietako euskal hiztunekin lan eginez galtzeko zorian diren euskararen altxorak berreskuratzen saiatu ere. Azken lan hori egin ahal izateko, baserri baserri ibili zen, zazpi lurraldeetan barrena, eta ezagutu zituen baserriarrek halako sare moduko bat osatua zuen. Sarri bisitatzen bazituen ere, urtero bazkari batean bildu ohi ziren. Gotzon Garate Elgoibarren jaio zen, 1934an. Durangoko jesuiten ikasketean egin zituen lehen ikasketak eta han erne zitzaion euskaltzaletasuna ere, ikaskide zituen bi azpeitiarren eraginez. Haiekin hitz eginez ohartu omen zen euskalduna zela, benetako euskalduna izateko euskaltzalea izan behar zuela eta ahal zuen neurrian euskararen alde lan egin behar zuela. Bere ahalegin ugarien artean nabarmentzekoa da Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasketak abian jarri izana.

Jean Diharce «Iratzeder»



GAUR8

Jean Diharce deitzen zen, baina olerkari gisa Iratzeder izenez ezagutu dugu guztiok. Donibane-Lohizunen sortu zen, 1920an. Uztaritzeko eta Baionako apeztegiengan egin zituen ikasketak eta 1941ean Belokeko fraidetxean sartu zen. Fraidetxe horretako fraidegaiak hezten eman zituen hogeitau urte eta 1972an Belokeko aita abade izendatu zuten. Kargua utzi eta Afrikara misiolari joatea erabaki zuen, 1987an. Benin herrialdeko Zagnanado herrian eman zituen hamazazpi hilabete lanean. Urriaren 13an zendu zen, Beloken, eritasun luze baten ondoren. Oso gazterik hasi zen olerkiak idazten. Bere lehen liburua, "Pindar eta lano", 1941ean argitaratua da. Geroztik beste bost liburu atera zituen kalera. Sei liburu txiki horiek batean bilduz, "Biziaren olerkia", 650 orrialdeko liburu trinkoa atera zuen, 1983an. Prosan ere idatzi zuen eta "Biziaren gudaldia" liburuan bildu zituen batzuk. Sekulako lana egin zuen salmoak euskaratzen, baita aita Lertxundi musikagilearekin batean kantika berriak asmatzen ere.



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Mikel Laboa

Urte amaierako berri ilunena izan da Laboaren heriotza. 1934an jaioa zen, Pasaian. 74 urterekin hil da, beraz. Umea zela, ia bi urte eman zituen Lekeiteioko Gardatan. Medikuntza ikasketak egin zituen Iruñean eta Donostiako San Migel Patronatuan egin zuen lan, haurren neuropsikiatria sailean. Artean ikasle zela hasi zen musikaz arduratzen. Atahualpa Yupanqui eta Violeta Parraren eragina izan zuen hasieran. 1958an egin zuen debuta, Iruñeko Gaiarre antzokian. 60ko hamarkadan Ez Dok Amairu sortu zuen, beste artista batzuekin batean. Euskal kultura eta bereziki musika berritza zuten helburu. Talde horren inguruan indartu zen euskal kantagintza berria. Laboaren musikak tradizioz badu, baina baita esperimentalismotik eta poesiatik ere. Gaurko euskal poeta handien lanak kantatu ditu etengabe, baita Bertold Brechten poemak ere. Ahotsa zuen oso berezia, kantaera erabat pertsonala eta bere eragina ondoko belaunaldietaraino iritsi da. Nabarmentzekoak dira bere «Lekeitio» esperimentalak. Hots eta hitzekin jolas eginez osatutako kanta horiek gaur abangoardiakotzat jotzen diren kantari batzuen aitzindari direla esan daiteke. 1974an argitaratu zuen "Bat-hiru" diskoa, «historian egin den euskal diskorik onena», egunkari bateko irakurleen ustez. Hamazpigarren diskoa atera zuen orain gutxi.